

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 2,8 milioi euro jarriko ditu hamaika mankomunitatetan puntu garbiak abian jartzeko

Elizalde kontseilariak gaur inauguratu du Garesen, etxeko hondakin arriskutsuak, eraikuntzako obra txikiko hondakinak edo inausketakoak birziklatzeko eta berrerabiltzeko zerbitzu berria

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 23

Gaurtik aurrera, Izarbeibarko Mankomunitateak puntu garbi bat izango du etxeko hondakin arriskutsuentzat. Puntu garbia Garesko Aloa poligonoan kokatzen da, eta zerbitzua emango die mankomunitateko udalerririk osatzen dituzten 11.000 pertsona ingururi. Proiektua Nafarroako Gobernuak, Hondakinen Kontsurtzioak eta MAPAMAK (Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa) finantzatu dute.



Ezkerretik eskuinera, Mendo, García, Elizalde kontseilaria eta Izarbeibarko Mankomunitateko teknikariak.

2018an eta 2019an zehar, 3,5 milioi euroko inbertsioak egingo dira, eta, horiei esker, puntu garbi gehiago abian jarri ahal izango dira foru-geografia osoko 11 mankomunitatetan. Puntu garbiak Tokiko Inbertsioen Planeko funtsekin (2,8 milioi euro), Hondakinen Kontsurtzioekin eta Iruñerriko Mankomunitateekin (0,7 milioi euro) finantzatuko dira.

Aipatzekoa da hondakin-mota horiek zailenak direla behar bezala kudeatzeko; beraz, Foru Komunitateko puntu garbi guztietarako estrategia bera ezarriko da. Era horretan, langileek prestakuntza espezifiko izango dute, eta sistema informatiko berritzailea jarriko da hondakinaren bizi-zikloaren segimendua egin ahal izateko.

Inaugurazio-ekitaldian honako hauek hartu dute parte: Landa-garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak, Isabel Elizalde; Garesko alkateak, Oihan Mendok; Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakariak, Sabina Garcíak; eta Nafarroako Hondakinen Kontsurtzioeko kudeatzaileak, Iñaki Urrizalkik.

Elizalde kontseilariak eskainitako hitzaldian, nabarmendu du hondakin gutxiago sortzeak eta berrerabiltzeak duen garrantzia. Ildo horretan, Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Plana aipatu du; plan horretan kokatzen da gaur aurkeztutako zerbitzua, eta hondakinen %65a gaika biltzearen aldeko apustua egiten du. Etxeko eskala txikiko eta kudeaketa zaileko hondakinei dagokienez, garrantzitsua da era horretako instalazio-kopurua gehitzea, gehiago biltzeko eta gaika bildutako gainerako kalitatea hobetzeko.

Halaber, agerian utzi du Nafarroako Gobernuak neurri-mota horiekiko duen konpromisoa. Era horretan, beste ekimenen artean, Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkular alderako Trantsiziorako Bulego berria abian jarriko da, "Nafarroa ildo horretan erreferentziatzeko gizarte bilakatzen laguntzeko, lehengaien erabilera arduratsua eginaz, tokiko baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuaz eta murrizteko, berrerabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko araua etengabeko zirkuluan aplikatuaz, naturaren beraren funtzionamendua imitatuta".

Izarbeibarko Mankomunitatetik adierazi dute, azpiegitura honekin, Larragako puntu garbia egokituta eta hainbat instalazio finko jarrita etxeko hondakin bereziak jasotzeko, era horretako hondakinak biltzeko herritarren eskaria bete nahi dela.

Ekitaldian izan dira, baita ere, Izarbeibarko Mankomunitatean sartuta dauden herrietako alkateak eta zinegotziak, erakundeko bertako langileak, udal-langileak eta hondakinen kudeatzaileak.

Galería de fotos

